



# BilboShop

B I L B O B I Z I

## Proiektuaren aurkezpena

Proiektuaren izena: **BilboShop**

BilboShop Bilboko merkataritza txikia sustatzea xedetzat duen online plataforma da. Bilboko denda txikiak online panoraman leku bat hartzea ahalbidetuko du, **urrutiko salmenta zerbitzuak** eskainiz. Plataforma, funtsean, online denda bat izango da zeinek orrialde nagusi bat izango du. Bertan, plataformako denda eta produkturik esanguratsuenak bereiziko dira, baita harpidetutako dendek eskainitako hilabete bakoitzeko promoziorik inportanteenak ere. Eskainiko dugun beste zerbitzu bat **aholkularitza** da, zerbitzu honen bitartez harpidetutako dendak aholkatuko ditugu **marketing** arloan haien jendaurreko itxura eta marka hobe dezaten. Horrez gain, eta marketingaren arlotik jarraituz, diseinu grafikoko zerbitzuak ere eskainiko ditugu, dendentzako logotipoak, publizitate materialak eta abarrekoak diseinatzeko. Baita, denda bakoitzaren informazioa adierazteko eta haiekiko komunikazioa internetera zabaltzeko web pertsonalizatuak sortzeko zerbitzua ere eskainiko dugu, beti ere web horietan gure salmenta plataforma salmenta modu **bakartzat** inplementatuz.

Egileak: GALTAGAPA taldea (IES Urbi BHI),

*Gorka Padilla*

*Jone Galindez*

*Jon Gallego*

*Iker Tapia*



Proiektuaren eredua garatu dugu eta interneten dago erabilgarri, ezin dira erosketak burutu baina plataforma ikusi daiteke egitasmoa guztiz ulertzeko:

**[www.bilboshop.es](http://www.bilboshop.es)**

